


## Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 jaitsi ziren 2011ko ekainean aurreko hilaren aldean

***Azken hamabi hilabeteetan (2011ko ekaina, 2010ekoarekin alderatuta) eraikuntza kostuek lehengoan iraun dute (%0,0)***

2011ko ekainean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan aldaketarik ez (%0,0), EUSTATen datuen arabera.

**Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011**



(\*) Gehikuntza ekainako urte artekoa da  
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilaren aldean, 2011ko ekainean lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 jaitsi dira.

Ekainean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Obra Zibilean %0,2ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Etxegintzan aldaketarik ez (%0,0). Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %1,0 jaitsi dira eta Obra Zibilekoenak %1,9 igo. Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (%19,2), Petrolio-fintzea (%17,7) eta Metalurgia (%10,1) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2011ko ekaina 2010ekoaren aldean)

jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Erauzketa industriak (%-8,3), Mineral ez-metalezkoen beste produktuen fabrikazioa (%0,3) eta Altzarigintza eta beste manufaktura-industriak (%1,4).

#### ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO EKAINA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

| GOIBURUAK                  | INDIZEA<br>2005 = 100 Oinarria | ALDEAREN %             |                                   |                           |
|----------------------------|--------------------------------|------------------------|-----------------------------------|---------------------------|
|                            |                                | Aurreko hilaren aldean | Aurreko urteko hil beraren aldean | Aurreko abenduaren aldean |
| <b>KOSTUA GUZTIRA</b>      | <b>119,1</b>                   | <b>-0,1</b>            | <b>0,0</b>                        | <b>0,6</b>                |
| ERAIKINAK                  | 118,1                          | 0,0                    | -0,5                              | 0,3                       |
| OBRA ZIBILA                | 122,9                          | -0,1                   | 1,8                               | 1,7                       |
| <b>LEHENGAIEN KOSTUA</b>   | <b>118,2</b>                   | <b>-0,1</b>            | <b>-0,4</b>                       | <b>0,4</b>                |
| ERAIKINAK                  | 116,9                          | 0,0                    | -1,0                              | 0,0                       |
| OBRA ZIBILA                | 122,9                          | -0,2                   | 1,9                               | 1,8                       |
| <b>LAN-ESKUAREN KOSTUA</b> | <b>122,9</b>                   | <b>0,0</b>             | <b>1,5</b>                        | <b>1,5</b>                |

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

#### Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua